


USURBILGO KULTUR AGENDA

2018ko
iraila
**SAGASTIAK
LORETAN**



USURBIL

**SAGARRAREN BIHOTZA,
SAGARDOAREN KULTURA**



KULTUR AGENDA

2018ko iraila

Ostirala 21:00 Artzabal tabernan	MASUSTA KOFRADIAREN EGUNA	7
Igandea 07:30 Kiroldegiko aparkalekutik	LEINTZ-GATZAGA / ARANTZAZU IRTEERA	9
Larunbata 17:00 Aginagako Ludotekan	TRAKAMATRAKA IKUSKIZUNA HAURRENTZAT	15
Larunbata Aginagan	XUAREKIN ELKARTASUN GAUA. KONTZERTUAK	15
Igandea 10:30 Mikel Laboa plazatik	XI BAXURDE KROSA	16
Asteazkena 19:00 Sutegin	EUSKARALDIA: ZERGATIK ETA ZERTARAKO?	19
Ostirala 19:00 Sutegin	MAHAINGURUA: MOTXILADUN GAZTE BAT, ABOKATU BAT ETA SARA MAJARENAS	21
Santuenean	SANTUENeko JAIK	21-23
Larunbata Egunean zehar Aginagan	AGINAGAKO ESKOLA TXIKIAREN V. EGUNA	22
Igandea 11:00 Zubietako Hipodromoan	SAGASTIAK LORETAN: BERTSO IBILBIDEA	23
Asteartea 19:30 Sutegin	SAGASTIAK LORETAN: USURBIL ETA SAGARDOAREN HISTORIA HITZALDIA	25
Asteazkena 19:30 Aitzaga Elkartean	SAGASTIAK LORETAN: SAGAR DASTATZEA	26
Osteguna 19:30 Sutegin	SAGASTIAK LORETAN: SAGARRARI SUKALDEA DARIO	27
Ostirala 19:30 Sutegin	SAGASTIAK LORETAN: "SAGARDOA BIDE GILE" DOKUMENTALA	28
Larunbata 19:00 Mikel Laboa plazatik	KANTUJIRA	29
Larunbata 20:00 Frontoian	SAGASTIAK LORETAN: EUSKAL HERRIKO IV. SAGARDO TXAPELKETA HERRIKOIAREN FINALA	29
Igandea 19:00 Artzabalgunean	IMUNTZO ETA BELOKIREKIN ERROMERIA	30

IKASTAROKAK

Izen ematea irailaren 15a baino lehenago	YOGA, AEROYOGA, REIKIA ETA ERRETAURATIBOA
Izen ematea irailaren 14a baino lehenago	ARGAZKILARITZA DIGITALA, LABOREAK, YOGA,, PINTURA, ESKULANAK, MASAJEA, SABEL DANTZA/HIP HOP

ERAKUSKETAK

Sutegin	MOTXILA ETORKIZUNEZ BETE	17/22
Sutegin	SAGAR ERAKUSKETA IRAUNKORRA	24/30

22

Larunbata

Egunean zehar

Aginagan

Aginagako **Eskola Txikiaren V. Eguna****Antolatzailea:** Aginagako Eskola Txikiko Guraso Elkartea.

10:30 Umeentzat jolasak.

13:30 Bazkaria.

17:00 Antzerkia: Txapela buruan eta dantza munduan.

Ondoren, txokolatada.



23

Igandea

11:00

Zubietako Hipodromoan

VI. Sagastiak Loretan. **Bertso Ibilaldia****Antolatzailea:** Sagardoaren Unibertsitatea.

Usurbil eta Zubietako inguruan ibilbidea, sagastiak ezagutzeko Oihana Iguaran eta Andoni Egaña bertsolarien eskutik. Ondoren, mokadua Irui Sagardotegian.

25

Asteartea

19:30

Sutegiko auditoriumean

VI. Sagastiak Loretan. **Usurbil eta Sagardoaren historia hitzaldia****Antolatzailea:** Sagardoaren Unibertsitatea.

Usurbil eta Sagardoaren historiari buruzko hitzaldia Xabier Alberdi historialariaren eskutik. Usurbilgo herriari izaera ematen dion edaria da Sagardoa. Historia ezagutu nahi?

26

Asteazkena

19:30

Aitzaga elkartearen

VI. Sagastiak Loretan **SAGAR dastatzea****Antolatzailea:** Sagardoaren Unibertsitatea.

Jakoba Errekondo eta Gabriel Durrutyren eskutik sagar dastatzea egingo da. Sagardotarako sagarren ezaugarriak ezagutu ahal izango ditugu, euskal sagar barietateen nondik norakoak azalduz.

27

Osteguna

19:30

Sutegiko auditoriumean

VI. Sagastiak Loretan **Sagarrari sukaldean dario****Antolatzailea:** Sagardoaren Unibertsitatea.

Dani Lasa, sukaldari ikertzailearen eskutik. Zuztarretik hazietaraino, sagarrak makina bat aukera eskaintzen diezaizkiguke sukaldean. Fruitua, ospina edo sagardoa bera, osagai erakargarriak dira platera gozo zein gaziei gure lurraren nortasuna kutsa dakiegun. Errezeta eta ideien errepaso praktikoa egiteko aukera.

28

Ostirala

19:30

Sutegiko auditoriumean

VI. Sagastiak Loretan. "Sagardoa bidegile" dokumentalaren proiektzioa

Antolatzailea: Sagardoaren Unibertsitatea.

Urtean lau hilabetez, urtariletik apirilera, euskal sagardotegiek milaka pertsona erakartzen dituzte, bertokoak zein kanpokoak. Tradizioa bete nahi dute denek: tortilla, bakailaoa, txuleta eta gazta jatea, eta txotxera deitzen duen ahotsa entzundakoan sagardoa edatea. Tradizio modernoa da hau, baina erro sakonak ditu. Dokumentalak bidaia moduan azalduko digu tradizio hau: ibilbide geografiko, kultural, teknologiko eta gastronomikoa izango da, ezusteko betea.



29

Larunbata

19:00

Mikel Laboa plazatik irteera

Kantu jira

Antolatzailea: Usurbilgo Euskal Kantu Taldea.

Laguntzailea: Usurbilgo Udala.

Herritar orok parte har dezake. Har ezazue liburuxka eta zatozte elkarrekin kantatzera.



29

Larunbata

20:00

Frontoian

VI. Sagastiak Loretan. Euska Herriko IV. Sagardo Txapelketa Herrikoïaren finala

Antolatzaileak: Sagardoaren Unibertsitatea, Gipuzkoako Sagardogileen elkarte, Sagardo Egunaren lagunak.

Usurbilgo herria eta Gipuzkoako Sagardogileen Elkartearen eskutik. Afalduz, Euskal Herriko beste herrietan sailkatu diren 12 sagardo dastatuko dituzu, eta norberaren iritziazen arabera erabakiko da zein den aurten go txapelduna.

Txartelak salgai jarriko dira abuztuaren azken astetik aurrera Usurbilgo ohiko lekuetan eta Gipuzkoako Sagardogileen Elkartean: info@sagardoa.eus - 943 336 811



30

Igandea

19:00

Artzabalgunean

Imuntzo eta Belokirekin erromeria

Antolatzaileak: Artzabal, Guria eta Laukote.

